

Maitasunaren indarrari amore eman

Bizitzak, sarritan, pixkanaka eta nahi gabe, geure baitan ixten garen egoeretara eramaten gaitu: eztabaida bat, norberaren ziurtasunak, gure egoa edo gure beldurrak.

Baina, batzuetan, nahikoa da hitz soilez egindako galdera simple bati erreparatzea, espero ez diren aldaketa-aukerak ikusteko: "Nor zara zu niretzat?" edo beste hitz batzuetan, "Nor naiz ni zuretzat?" Galdera horiek, Margaret Karramek dioen bezala, keinu zehatzei bidea irekitzen diete: "lehen pausoa eman, entzun, denbora "galdu", oinazeak uki gaitzan utzi"¹. Argi dago: besteengan pentsatzen badugu, ez dugu guran pentsatzen, ezta gure ahulezietan, porrotetan edo zaurietan ere. Bestearengan pentsatzeak haren lekuan jartzera garamatza, elkarrekikotasun-jarrera batean: "nola sentituko nintzateke ni, besteak esango niokeen gauza bera esango balit?" edo "zer egin dezaket haren alde?"

Gure ekintzak ondoan dugunaren ongizateari lehentasuna emateko nahitik sortzen badira, denak har dezake dimentsio handiagoa, eta beste pertsonari esan diezaiokegu libreki eta trukean ezer espero gabe maite dugula.

Baina batzuetan etsipenak, frustrazioak, nekeak har gaitzake. Ira Robert Byock mediku estatubatuarrek dio etsipen handieneko uneak "amorrurik, beldur eta mesfidantza kaiola"² baten menpeko sentitzen zarenean sortzen direla. Une horietan, maitasunaren indarrari amore behar diogu amore, dena ahal duenari, loturetatik askatzen gaituenari eta beldurrik gabe berriz hastera animatzen gaituenari. Horrela adierazten du Gen Rosso musika taldeak bere abestietako batean: *"Berrirori hastea bizitzari berrirori bai esatea bezala da, gero askatzeko eta mugarik gabeko zerumugetara hegan egiteko, non pentsamenduak ez duen beldurrik. Eta zure etxea mundua bezain handi bihurtzen ikustea. Berrirori hastea maitasunean sinestea da, eta oinazean ere arimak kanta dezakeela sentitzea, eta inoiz ez gelditzea"*.

Horrelako jarrera batek aldaketa pertsonala ekar dezake, baina baita komunitarioa ere, elkarriketa zintzo eta eraikitzaile batean gure ezinegonak partekatzen ditugunean. Benetako adiskidetasun giro horretangizarte-ehuna berreraiki ahal izango dugu amorruren ordezkari hausnarketa, beldurraren ordezkari bide berrien bilaketa eta mesfidantzaren ordezkari itxaropena ezarriko dituen. Gizartearen eraikitzearen modu berri baten ikur bihurtuko gara.

Batzuetan, benetan, nahikoa da hitz soil bat:

"zu niretzat garrantzitsua zara... zu zeu zarelako!"

¹ M. Karram: "gertu" - 2024

² Iturria: The Economist – The 2015 Quality of Death Index. Ranking palliative care across the world